

**PSE-EE.** Zerrenda osatu ezin duten udaletan, ez dute baztertzen PPrekin batera aurkeztea

# PSEk ez du Batasunaren proposamenik babestuko, edukiakin bat egin arren

Batasunaren babesa «ez baliatzeko» eskatu dio Lopezek Ibarretxeri



ALFREDO ALDAI / EFE

Patxi Lopez, atzo, PSE-EEko zuzendaritza batzordeak hartutako erabakiak azaltzen.

Humberto Unzueta | BILBO

PSE-EEk Batasunarekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko izango duen jarrera eta elkarrizketarako esparrua zehaztu zituen atzo Patxi Lopezek. Batasunarekin ez du inolako harremanik nahi, ezta bat etortzerik ere, harik eta indarkeriarekin duen jarrera aldatzen ez duen arte. Idahoko

ebazpenaren moduko autode-terminazioaren aldeko jarrerak babesten badituzte, PSEtik «oso urrun» egongo direla ohartarazi zien Ibarretxeri eta EAJ-EAri.

Patxi Lopezek atzo adierazitakoaren arabera, PSE-EEk ez du inoiz Batasunarekin bat egingo erakundeetan, ezta alderdi abertzalearen «iritzi berekoa» denean ere.

PSE-EEko idazkari nagusiaren hitzetan, «guretzat, jardura politikoan, Batasuna ez da existitzen, ez Legebiltzarrean, ez aldundietan, ez udaletan». Argiago esanda, sozialistek ez diote inoiz babesik emango Batasunak egindako proposamen bati, edukietan bat etorri arren, eta oposizioa egiteko ez dute Batasunaren babesa baliatuko.

## ESANAK

**PATXI LOPEZ**

(PSE-EEko idazkari nagusia)

«Guretzat Batasuna ez da existitzen, ez Eusko Legebiltzarrean, ez foru aldundietan, ezta udaletan ere»

«Ibarretxek ez du bere hitza betetzen, eta esaten duenaren kontrakoa egiten du»

«Ez dugu baztertzen zerrenda bateratuak osatzea, gureak osatu ezin ditugun herrietan»

«Indarkeria gaitzesten ez duen alderdi batekin» politikarik ezin dela egin adierazi zuen Lopezek, PSEren zuzendaritzaren erabakia arrazoitzeko. Jarrera aldatzen ez badu, Batasunak politikan jarduteko «zilegitasunik» ez duela esan zuen.

Jaurlaritzari Idahoko ebazpena aurrera ateratzeko Batasunaren botoak baliatzea egotzi zion, eta Ibarretxek «gauza bat esan eta aurkakoa» egiten duela salatu zuen.

Udal hauteskunderi begira, PSEk ahalik eta herri gehienetan aurkeztu nahi ditu zerrendak, «gutxienez, lehen aurkeztu dugunetan edo bozen %5 lortu dugun udalerrietan». Mehatxuak medio, ezinezkoa denean, sozialistek ez dute baztertzen PPrekin batera zerrenda bateratuan aurkeztea. Bestalde, PSE-EEren hautagaiak aukeratzeko *primarioak* atzeratzeko baimena eskatuko dio PSOeri.

## AUTOGOBERNUA

**Jaurlaritzak PPren gobernuak duen borondatea «neurtuko» du gaur Madrilan**

L.K.G. | GASTEIZ

Espainiako Gobernuak «autogobernua betetzeko borondate politikorik ote daukan neurtu eta aztertzea» hartu du helburu nagusitzat Gasteizko gobernuak, gaur Madrilan egingo duten bileran.

Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde Idoia Zenarruzabeitiak eta Espainiako Gobernuko Administrazio Publikoetako ministro Jesus Posadak aurrez aurreko lehen harremana izango dute, gaur, azken bi urteetan soil-soilik idatzizko harremanak izan ondotik.

**«Elkarrizketa politikorako zubiak luzatu»**

Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Jon Imazen arabera, «lotsagarria» da urteak joan urteak etorri Espainiako Estatuak autogobernu ituna bete ez izana. Beraz, Zenarruzabeitiak PPren gobernuaren «benetako asmoa zein den» baieztatu nahi du gaurko bileran, eta, era berean, ahal izanez gero, «elkarrizketa politikorako zubiak luzatzeko» aukera aztertu.

Imazen esanetan, Eusko Jaurlaritzaren ustea da Gernikako Estatutua «behin betiko betetzeko garaia» ailegatu dela. Eskumenei buruzko auziak oraindik indarrean jarraitzea salatu zuen.

**EUSKAL PRESOK.** Igandean hasi eta aste osoan era askotako ekintzak izango dira Bilboko kale eta auzoetan barrena

## Preso bilbotarren sakabanaketa salatzen ekintza andana prestatu du Etixerat-ek

H.U. | BILBO

Bilboko 33 preso sakabanaketa egoera salatzen, Etixerat elkarteak hainbat ekintza burutuko ditu datorren astean, Bizkaiko hiriburuan. Ekimenaren bitartez, Etixerat-ek preso bilbotarren eskubideen urraketaz eta senitartekoen sufrimenduaz ohartarazi nahi die herritarrei.

Igande honetan hasita eta hurrengo asteburua arte, Bilboko hainbat auzo, kale eta bazter era guztietako ekitaldien agertoki izango dira. Ekitaldi gehie-

nak festa giro alaian bizitzeko prestatu dira, hala nola musika kurtzertuak, bertso jaialdia, edota konpartsak. Beste batzuek, aldiz, kutsu politikoa izango dute.

Egitarauaren ekintza bat nabarmendu zuten antolatzaileek: Arriaga antzokiaren aurrean preso bilbotarrei elkartasuna adierazteko 22 urtez asteartero egiten den elkarretaratzea.

Presoen senideak «xantaia egiteko» erabiliak izaten direla salatu ondoren, Etixerat-eko ordezkari Jone Artolak gaiak he-

dabideetan duen oihartzun eskasa kritikatu zuen. «Gizartearen erantzuna bestelakoa izango zen, presoek buruzko errealitatea modu gordinean azalduko balute». Legeak agintzen duena bete eta espetxealdia etxetik ahalik eta gertuen betetzea eskatzen du Etixerat elkarteak: «Bilboko presoak Basauriko espetxera ekartzea eskatzen dugu».

Orotara, 33 dira egun preso dauden bilbotarrak. Horietariko bik bakarrik betetzen dute zigorra Euskal Herriko espetxeetan.



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Etixerat-ek atzo eskainitako prentsaurrekoa, Bilbon.